

Hernaniko Udaleko Gobernu batzarrak 2026ko otsailaren 05ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

BIDEA BURUJABETZEN ALDEKO HERRITARREN ELKARTEA ETA HERNANIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA 2025EKO GASTUEN JUSTIFIKAZIOA ETA 2026RAKO HITZARTUTAKO DIRULAGUNTZA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izango da, hau da, 2025/01/01 - 2028/12/31 bitartekoa.

Hernaniko Udalak BIDEA Burujabetzen aldeko herritarren elkarteari 50.000 €-ko dirulaguntza emango dio 2025 urterako. Kopuru hori lau zatitan ordainduko da, otsaila, maiatza, abuztua eta azaroan, hain zuzen ere.

BIDEA Burujabetzen aldeko herritar elkarteak Hernaniko Udaletik jasotako diru-laguntza honako gastuei aurre egiteko erabiliko du: aholkularitza eta dinamizazioa eramango duen pertsonal laborala kontratatzeke, komunikazio ekintzak, sentsibilizazio kanpainak, herri ekimenak eta hitzaldiak egiteko, hala nola administrazio gastuak ordaintzeko.

2026ko urtarrilaren 19an BIDEA herritar taldeko ordezkariak, 2025 urteko gastuak justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu du.

BIDEA HERRITAR TALDEA (Dirulaguntza zuzena)

BIDEA herritar taldeari 2025an 50.000 euroko dirulaguntza esleitu zitzaion. Dirulaguntza hori justifikatzeko agiriak aurkeztu ditu. Aurkeztutako justifikazioa bat dator 2025ean sinatutako hitzarmenarekin eta dirulaguntzaren kitapen hau egin da:

<i>Ekintzaren aurrekontua:</i>	50.000 €
<i>Justifikatutako gastuak</i>	49.930,21 €
<i>Aurreratutako dirulaguntza (%100):</i>	50.000 €
<i>Diferentzia</i>	69,79 €
<i>Berandutze tasen aplikazioa %4</i>	0,61 €

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2026ko urtarrilaren 29ko bilkuran gehiengoz emandako irizpena

Horiek horrela, hau erabaki da gehiengoz

Lehena.- BIDEA herritar taldeari eskatzea 70,40 € euro itzultzeko Hernaniko Udalari, 2025 urteko dirulaguntzaren kitapen gisa.

Bigarrena.- 2026rako hitzartutako dirulaguntza onartzea, 50.000€koa (1 2110.481.02.924.00 2026) eta ordainketak zehaztutako epeetan egitea (otsaila, maiatza, abuztua eta azaroa).

Hirugarrena.- Erabaki honen berria interesatuei jakinaraztea.

Laugarrena.- Erabaki honen berria Ogasunari ematea.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluaekin bat etorritik



**Hernaniko
Udala**

Hala ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

*Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko udal-Idazkaria
Hernanin 2026ko OTSAILAREN 11AN*

Jakinarazpen hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna, QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoaren bidez egiazta dezakezu.

Gudarien Plaza 1 · 943 337 000 · hzh@hermani.eus

EKS | CSV: ESKUbabfa52a-b7ea-4798-9513-146959752870



Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04010>